

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

IKT-AK LEHEN HEZKUNTZAN: MUGIKORRAREN ERAGINA IKASLEEN ERRENDIMENDU AKADEMIKOAN

Egilea: Silvia Francisco Llorente

Zuzendaria: Nuria Galende Pérez

Leioan, 2015eko ekainaren 3an

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA



EGILEAREN ONIRITZIA



A U R K I B I D E A

Sarrera	5
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	6
1.1. Aurrekariak eta egungo egoera.....	6
1.2. IKTek eskaintzen dituzten abantailak.....	7
1.2.1. IKTen funtzio nagusiak.....	8
1.2.2. Mugikorra, IKT ezberdinak barne hartzen dituen tresna.....	8
1.3. IKTen desabantaila nagusienetariko bat: menpekotasuna.....	9
1.4. IKTekiko menpekotasunaren izaera eta alarma-seinaleak.....	11
1.5. Mugikorra eta errendimendua eskolan.....	12
2. Metodologia.....	13
3. Lanaren garapena.....	13
3.1. Prozedura.....	13
3.2. Lagina.....	13
4. Emaitzak.....	15
4.1. Internet mugikorrean.....	15
4.2. Lehenengo mugikorra jasotzean zuten adina.....	15
4.3. Mugikorrarekiko menpekotasuna.....	15
4.4. Mugikorraren gastua.....	18
4.5. Mugikorrari ematen dioten erabilera.....	19
4.6. Ohiturak.....	20
4.7. Mugikorrari ematen dioten erabileraren inguruan duten pertzepzioa.....	21
4.8. Mugikorrarekiko menpekotasuna eta errendimendu akademikoa.....	21
5. Ondorioak.....	23

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola	3
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	28

ERANSKINAK

1. eranskina. Ikasleentzako galdetegia
2. eranskina. Gurasoek sinatu beharreko baimen orria

**IKT-AK LEHEN HEZKUNTZAN:
MUGIKORRAREN ERAGINA IKASLEEN ERRENDIMENDU
AKADEMIKOAN**

Silvia Francisco Llorente

UPV/EHU

IKTekiko (Informazio eta Komunikazio Teknologia) menpekotasuna, oso gai eztabaidatua da gaur egun, batik bat, guraso eta hezitzaileak kezkatzen dituen. Mugikorra aipaturiko teknologia horien barne dagoenez, horretaz egiten den erabilera ezagutzeaz gain, ikerketa honen helburu nagusia mugikorraren erabileraren eta errendimendu akademikoaren arteko korrelazio posible bat aurkitzea da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 39 ikasleko lagina erabili da. Emaitez, aipaturiko korrelazioa erakusten dute. Beraz, prebentzioaren garrantzia azpimarratzeko asmoz, menpekotasun jokaeraren garapena ekiditeko zenbait gako ematen dira.

IKT, mugikorra, menpekotasuna, Lehen Hezkuntza, errendimendu akademikoa

La adicción a las TICs (Tecnologías de la Información y Comunicación) es un tema muy discutido a día de hoy que preocupa principalmente a padres/madres y educadores. Dado que el teléfono móvil se encuentra dentro de dichas tecnologías, además de conocer el uso que se hace de éste, el objetivo principal de este estudio es encontrar una posible correlación entre el uso del teléfono móvil y el rendimiento académico. Para ello, se ha utilizado una muestra de 39 alumnos de 5º y 6º curso de Educación Primaria pertenecientes a la Comunidad Autónoma Vasca. Los resultados muestran la existencia de dicha correlación, por lo que con intención de hacer hincapié en la prevención, se proporcionan ciertas claves para evitar el desarrollo de una conducta adictiva.

TIC, móvil, adicción, Educación Primaria, rendimiento académico

ICT (Information and Communication Technologies) addiction is a very discussed topic today which mainly concerns parents and educators. As the mobile phone is within these technologies, apart from knowing the use made of this, the main objective of this study is to find a possible correlation between mobile phone use and academic achievement. To this end, a sample of 39 students from 5th and 6th year of Primary Education that belong to the Basque Autonomous Community has been used. The results show the existence of such correlation, so with the aim of emphasizing prevention, certain keys are provided to prevent the development of an addictive behaviour.

ICT, mobile phone, addiction, Primary Education, academic achievement

Sarrera

IKTak hedadura, garapen eta berrikuntza etengabeen dauden tresnak izanik, azken urteotan, onarpen handiena izan duen gailu teknologiko horien artean, mugikorra dago. Mugikorra gero eta erabiliago denez biztanleria gaztearengandik, ikerketa honen asmoa, mugikorrari ematen zaion erabilerak ikasleen errendimendu akademikoan izan dezakeen eragina aztertzea da. Lehen Hezkuntzako etapan, oso ikerketa gutxi direnez bi aldagai horiek aztertu dituztenak, artikuluko honetarako egindako ikerketa lana Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan oinarritu da. Izan ere, ikerketa gehienak 12 urtetik gorako nerabeekin egin dira, hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zein Batxilergoko ikasleekin. Hala ere, nerabezaroa baino lehenagoko etapan, menpekotasun jokaera ekiditea garrantzia handikoa denez, 10-13 urte bitarteko umeei mugikorreari ematen dieten erabilera aztertu da.

Horretarako, lanaren hasieran, IKTei buruzko hurbiltze teoriko bat eskaintzen da; hain zuzen ere, IKTen garapen, abantaila eta desabantailak, IKTekiko menpekotasuna, eta horiek errendimendu akademikoarekin duten lotura ezagutzeko, beti ere, mugikorraren erabileran zentratuz. Jarraian, ikerketa lana zelan garatu den azaltzeari ekiten da. Aurrerapen bezala, esan beharra dago datuak jasotzeko, batez ere, mugikorraren erabilera eta menpekotasuna neurtzen duten galdetegi batzuk erabili direla. Lanaren emaitzak, beraz, 39 ikaslek galdetegi horietan eman dituzten erantzunetatik lortu dira.

Azkenik, lortutako emaitzei emandako interpretazioak, hau da, ondorioak agertzen dira. Atal horretan gainera, mugikorraren erabilera ezegokiak ikasleen ikaskuntza prozesua zaildu dezala saihesteko, gako edo jarraibide batzuk proposatzen dira, batez ere, gurasoei hain berri diren teknologia horien erabilpena kudeatzen lagundu diezazkieketenak.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

1.1. Aurrekariak eta egungo egoera

Gizakiak betidanik izan du komunikatzeko beharra. Hortaz, premia berriak sortu diren heinean, gizakia komunikatzeko prozedura eta mekanismo berriak sortzera behartuta egon da. Horren harira, denboraren poderioz, gizakiak gero eta tresna hobek sortu ditu. Horiei Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT, aurrerantzean) deritze. Aurki daitezkeen definizio guztien artean, Romaní-k (2011) horrela definitu zituen, autore ezberdinek egindako ekarpenenak berak egindako definizioan barneratuz:

Dispositivos tecnológicos (hardware y software) que permiten editar, producir, almacenar, intercambiar y transmitir datos entre diferentes sistemas de información que cuentan con protocolos comunes. Estas aplicaciones, (...) posibilitan tanto la comunicación y colaboración interpersonal (persona a persona) como la multidireccional (uno a muchos o muchos a muchos). Estas herramientas desempeñan un papel sustantivo en la generación, intercambio, difusión, gestión y acceso al conocimiento. (Romaní, 2011: 312).

Informazio eta komunikaziorako teknologia tresna garrantzitsuenak Aro Garaikidean sortu dira (Spiegel, 1997). Komunikatzeko eran aldaketa handia sortu duten tresnen artean mugikorra azpimarra daiteke. Horren aitzindaria, Martin Cooper izan zen. Izan ere, berak sortu zuen lehenengo irratitelefonoa 1973. urtean, Estatu Batuetan, Motorola izeneko konpainiarentzat lan egiten zuenean. Hala ere, lehenengo merkataritza sistema 1979an sortu zen, Tokion, NTT¹ konpainiari esker. Momentu horretatik aurrera, telefonia mugikorra hainbat herrialdetara hedatu zen. Hain handia izan zen haren onarpena ezen zerbitzua berehala kolapsatu baitzen. Ondorioz, sistemak berrizatzeko beharra sentitu zuten zerbitzua erabiltzaile guztiei bermatu ahal izateko.

Telefonia mugikorra sortu zenetik, belaunaldi ezberdinetan sailkatu egin da. 1979. urtean mugikorrek 1G teknologiarekin diseinatu ziren eta gaur egun, berriz, 4G teknologia eskuragarri dago. Azken horren berezitasun nagusia, abiadura handiko sarea eskaintzen duela da (Martínez-Martínez, 2001).

Azkenik, gaur egun, mugikorrek egiten duen eskaintza zabalagatik, gizakien adiskide bereizezina bihurtu dela esan daiteke.

¹ Nippon Telegraph & Telephone Corporation.

1.2. IKTek eskaintzen dituzten abantailak

IKT berrien zabaltzea, gizartean berriki gertatutako eta aldaketa kultural eta sozial bizkorrak sortu dituen fenomeno da. IKTen garapenak, informazioa transmititu eta trukatzeko zein beste pertsona batzuekin harremanetan egoteko aukera anitzak eskaini ditu. Ondorioz, gizartean komunikatzeko erak aldatu egin dira. Gaur egun, teknologiak behar-beharrezko tresnak bihurtu dira nerabeen eguneroko bizitzan (Sánchez-Carbonell, Graner & Quintero, 2010).

Hezkuntzari dagokion legedian (175/2007 Dekretua, 2007), gaur egungo munduan teknologiek duten garrantzia islatuta agertzen da ere. Izan ere, 2007. urtean zabaldu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumean, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna agertzen da, beste oinarrizko gaitasun batzuen artean. Zehazki, gaitasun horrek, teknologia berriak espiritu kritiko batekin maneiatzea eskatzen du. Ondorioz, teknologien erabilera ezinbestekoa eta derrigorrezkoa bilakatzen da hezkuntza arloan. Gainera, IKTak oso erabilgarriak zein eraginkorrek izan daitezkeenez Lehen Hezkuntzaren irakaskuntzan, oso tresna erabiliak dira eskoletan irakasleriaren aldetik. Horien erabileraren helburuetariko bat eskolan, irakaskuntza laguntzea da (González-Cortijo, 2013).

Ikasgelatik kanpo, IKTak oso erakargarriak dira ere ume eta nerabeentzat, berehalako erantzunak jasotzen dituztelako, interakzioa ahalbidetzen eta errazten dutelako eta aldi berean, hainbat ekintza egin ditzaketelako (Echeburúa & Corral, 2010). Gainera, internetek sare sozial birtualetan harpidetuta egoteko aukera eskaintzen die. Horietan, beste pertsona batzuk aurkitu, lagun zein ezezagunekin hitz egin, mezu publikoak zein pribatuak bidali, ekitaldiak antolatu eta argazkiak zein bideoak igo ditzakete. Modu honetan, besteen aurrean ikusgai sentitzen dira, lagunekin harremanetan egoteko aukera dute eta talde identitatea berresten dute. Izan ere, anonimatuan egoteak zein bakarti sentitzeak, nerabeak ikaratzen ditu. Azkenik, haien emozioak erraztasun handiagorekin azaleratzeko gai dira, aurrez aurreko komunikazioa ekiditen delako (Echeburúa & Corral, 2010).

1.2.1. IKTen funtzio nagusiak

Aldez aurretik azaldutakoa kontutan hartuz, IKTek nerabeen bizitzan honako funtzio hauek betetzen dituztela esan daiteke (Malo-Cerrato, 2006):

- Errealitatetik ihes egiteko eta larritasuna murrizteko funtzioa:

Entretanimendurako eskaintza komunikatibo ezberdinetan, gizabanakoa fikziozko pertsonaiekin identifika daiteke. Modu honetan, fikziozko mundu batean babesten da eta bere estutasun maila murriztuta ikusten da.

- Konpentsazio emozionalaren funtzioa:

Gazteen artean oso ohikoa da, teknologia tresnaren bat erabiltzea erlazio sozial berriak eraikitzeke eta jada dituzten lagunekin harremanetan egoteko. Modu honetan, bakardadeko edozein egoeraren aurrean, mugikorrek zein internetek ordainsari psikologiko bat eskaini diezaiekete haien erabiltzaileei. Ondorioz, horien auto-estimua eta errealizazio pertsonala handiagotu daiteke.

- Konpainia egiteko funtzioa:

Komunikabideak pertsonen eguneroko ekintzetan presente egoten dira. Halaber, gazteek, mugikorra eguneko momentu gehienetan erabiltzen dute. Gainera, mugikorra bera ez ezik, horren atzean egon daitezkeen pertsonak ere konpainia egin diezaiekete.

- Funtzio informatiboa:

Komunikabide ezberdinek momentu oro informatuta egoteko aukera eskaintzen diete. Beraz, eguneratutako informazioa jasotzeko aukera daukate. Gaur egun, komunikabide ezberdinak daude funtzio horretaz arduratzen direnak. Esaterako, mugikorra, telebista, ordenagailua edo posta elektronikoa.

1.2.2. Mugikorra, IKT ezberdinak barne hartzen dituen tresna

Gaur egun, arestian aipaturiko abantaila horiez gozatzeko, tresna bakar bat baino ez da behar: mugikorra. Malo-Cerratok (2006) hala ikusten du mugikorra:

El teléfono móvil ha sido una de las tecnologías mejor aceptadas por el sector de la población juvenil expandiendo su uso y disposición a unas velocidades jamás imaginadas. Este aparato tan sencillo, pero a la vez tan complejo, ha empezado a ser el punto de mira de muchos investigadores/as. (Malo-Cerrato, 2006: 111).

Gaur egungo mugikorrek erakintzen dituzten abantaila guztiak direla eta, mugikorrek baino, mugikor adimentsuen² (ingelesez, smartphone) izena hartzen dute. Horien indargune nagusia, ordenagailua ez bezala, edozein momentuan eta tokian erabil daitezkeela da, hain zuzen ere, duten tamaina maneiagarriagatik. Mugikor horiek, adibidez, ikasleei haien ikasketak edozein tokitan eta momentutan antolatzeke aukera eskaintzen diete. Izan ere, gaur egungo mugikorrek, lanak bidali, testuak kontsultatu, liburutegi birtualetara sartu eta hiztegiak kontsultatu daitezke, beste hainbat aukeren artean. Gainera, mugikorrek pairatu dituzten aurrerapenak direla eta, ahozko komunikazioa ahalbidetzeaz gain, mezu idatziak, bideoak, ahots grabaketak, jolasak eta argazkiak onartzen dituzte ere. Azkenik, internetera konektatuta egoteko azkartasunagatik eta lortu dezakegun informazio anitzagatik, esan daiteke mugikorrek jakinduria esku-azpian izatea ahalbidetzen duela (Ambriz, 2011).

Hala ere, nahiz eta mugikorrek egiten duen ekarpen mesedegarria ukaezina izan, horren erabilera ezegokia, kaltegarria izan daiteke. Aspekturik eztabaidagarrienetariko bat, teknologia horiek sor dezaketen mendekotasuna da (Labrador & Villadangos, 2010).

1.3. IKTen desabantaila nagusienetariko bat: menpekotasuna

Esan bezala, ikasgeletan irakasleek teknologia berri horien erabilera kontrolatzen dute. Aitzitik, batzuetan, eskolatik kanpo, helduek ez dute gazteek tresna horiei ematen dieten erabilera kontrolatzen edo gainbegiratzen. Ondorioz, horiek, ikaslearen arreta galarazi eta bere eguneroko bizitzaren jarduerak negatiboki eragin ditzakete (González-Cortijo, 2013).

Beraz, nahiz eta gizartea ezin litzateke teknologia berrien erabilerarik gabe ulertu eta akordio bat existitu IKTak ekartzen dituen abantailan, hainbat ikertzaile IKTak gizakien osasun fisiko eta emozionalean eragin ditzakeen arriskuak baloratzen hasi dira, batez ere, gazteetan (Weare, 2004). Izan ere, nerabeek, arrisku talde bat osatzen dute. Alde batetik, sentsazio berriak bilatzeko joera dutelako eta bestetik, teknologia berriak

² Hala ere, lanean zehar mugikor adimentsua baino, mugikor hitza erabiliko da, irakurketa errazteko.

erabiltzera gehienbat ohituta daudenak direlako (Sánchez-Carbonell, Beranuy, Castellana, Chamarro & Oberst, 2008).

Nahiz eta IKTekiko menpekotasuna duten kasu klinikoak zein interneten eta mugikorraren erabilera ezegokia patologiatzat hartzen duten ikerketak egon, mendekotasuna zalantzan jartzen da (Sánchez-Carbonell et al., 2008). Halaber, Buru Nahasmenduen Diagnostiko eta Estatistika Gidaliburuak (American Psychiatric Association, 2000) zein Gaixotasunen Sailkapen Internazionalak (World Health Organization, 1992) ez dute IKTekiko menpekotasuna barne hartzen.

Patologiatzat ez hartzeko lehenengo argudioa, IKTekiko menpekotasuna eraiketa sozial bat dela da. Izan ere, hainbat iritzi artikuluek desoreka berri hauei buruz hitz egiten dute. Ondorioz, sortzen duten ziurgabetasuna, nahikoa da kategoria patologikoaren eraiketa sozialerako, pertsona batzuek euren buruei menpeko deitzeko eta laguntza bila joateko autobetetzen den profezia emanez (Sánchez-Carbonell et al., 2008).

Bigarrenik, menpekotasuna bigarren mailakoa izan daiteke. Izan ere, sexuarekiko menpekotasuna, erosketekiko menpekotasuna eta ludopatia IKTen bidez sendotu daitezkeen menpekotasunak dira (Estallo, 2001; Viñas et al., 2002). Kasu horietan, teknologia tresna, lehenengo mailako menpekotasuna espresatzeko erabiltzen den kanal bat baino ez da.

Hirugarrenik, erabiltzaileek, menpekotasuna, teknologia edo tresna baten beharrarekin nahastu dezakete eta azkenik, menpekotasunaren kategoria hartu beharrean gehiegizko zaletasun bat izan daitekeela aipatzen da ere. Izan ere, limitea zein den ez dago oso argi (Sánchez-Carbonell et al., 2008).

Hala ere, nahiz eta IKTekiko menpekotasunaren inguruan oraindik bat-etortze bat ez egon, zenbait egile IKTekin erlazionatuta dagoen desoreka mendekotasun-sortzaile bat dagoelakoan daude (Estévez, Bayón, De la Cruz eta Fernández-Liria, 2009; Muñoz-Rivas, Navarro eta Ortega, 2003; Viñas, et al., 2002). Ondorioz, hurrengo azpiatalean, menpekotasun horren izaera zein menpekotasuna antzemateko ohiko seinale batzuk ezagutaraziko dira.

1.4. IKTekiko menpekotasunaren izaera eta alarma-seinaleak

Echeburúa eta Corralen iritziz (2010), IKTek sor dezaketen menpekotasunaren kontzeptua, teknologia berrien erabilera ezegokiak sor ditzakeen arazoak ulertzeko sortu da. Izan ere, gehiegizko edozein jokaera, menpekotasunean amaitu daiteke, nahiz eta sustantzia kimikorik ez egon. Berez, menpekotasuna zaletasun patologiko bat da, gizakiari dependentzia sortzen eta askatasuna kentzen diona. Menpekotasunak, beraz, menpekoaren bizitzaren arlo familiarra, akademikoa edo soziala era larrian kaltetu ditzake (Echeburúa & Corral, 1994).

IKTak plazera lortzeko lehentasunezko tresnak bilakatzen direnean, nerabeak mundu errealetik aldenduta bizi daitezke eta aitzitik, mundu birtual batean murgilduta (Becoña, 2006). Horren harira, neska-mutilak bere lagunak ikusteari uzten dionean eta pantailaren aurrean geratzea erabakitzen duenean, esaterako, bide-jokoetara jolasteko, mugikorrari bikoteari baino arreta gehiago jartzen dionean, edo etengabe IKTren bat dela eta arreta galtzen duenean, esan dezakegu IKTek eragin negatibo bat dutela nerabe horren eguneroko bizitzan (Estallo, 2001).

Menpekotasun kimikoekin gertatzen den era berean, menpekoek abstinentzia sindromea, ondoeza emozionalarekin (suminkortasuna, loezina, ezinegon psikomotorra) batera pairatzen dute, IKTekin ezin direnean egon. Gainera, beste menpekotasunekin gertatzen den bezala, normalean menpekoak ez du bere burua hala ikusten. Normalean, eskola porrota, jokaera arazoak, behin eta berriro errepikatzen diren gezurrak, isolamendu soziala eta presio familiarra dira egoeraren kontzientzia izatea eragiten dutenak. Hori dela eta, gaixoa baino, normalean, familia izaten da arazoaren berri ematen duena (Echeburúa, 2001; Echeburúa, Amor & Cenea, 1998).

Aipatzekoa da, menpekotasuna ez duen edozein pertsonak, IKTak plazera bilatzeko erabiltzen dituela. Aldiz, mendekoak, IKTetan ondoeza emozionalaren lasaigarria bilatzen du (Potenza, 2006). Gainera, menpekoak berehalako onurak baino ez ditu aintzat hartzen. Beraz, ez ditu epe luzera izan ditzakeen arazoei buruz hausnartzen. Ondorioz, menpekotasunak isolamendua, errendimendu baxua, beste gaiekiko ezaxola, jokaera ezegokiak eta loditasuna ekar ditzake, besteak beste (Echeburúa & Corral, 2010).

Griffithsen arabera (1995), menpekotasuna zehazten duen beste aspektu bat, koste ekonomikoa da. Hau da, IKTetan edo IKTen ondorioz, xahutzen den dirua. Hala ere, nahiz eta gastu horiek menpekotasunaren seinale izan daitezkeen, gehienetan gurasoak dira, tresnak zein fakturak ordaintzen dituztenak. Beraz, aspektu horrek ez du haiengan eragin zuzenik.

Esan bezala, ikertzaile batzuen ustez, gaur egun, ez daude pertsona batek IKTekiko menpekotasuna duela baieztatzeko irizpide zehatzak. Beste batzuek, berriz, teknologia berriekiko mendekotasuna erakusten duten alarma-seinale batzuk zehaztu dituzte (Young, 1998):

- Lo egoteko denbora murriztea (5 ordu baino gutxiago) konektatuta egoteko.
- Denbora gutxiago eskaintzea beste jarduera garrantzitsuei. Hala nola, familiari, erlazio sozialei, ikasketei edo norberaren osasunari.
- Gurasoengandik zein anai-arrebengandik kexak jasotzea, teknologia berriei egiten zaien erabilera dela eta.
- Teknologia berrietan etengabe pentsatzea eta haserre sentitzea konexiorik ez dagoenean edo oso geldo doanean.
- Denboraren nozioa galtzea.
- Teknologia berriekin egoten den denborari buruzko gezurrak esatea.
- Sozialki bakartzea eta suminkor azaltzea.
- Eskolan errendimendua jaistea.

Azkenik, aipatzekoa da, menpekotasunaz hitz egiteko, konektatuta ematen diren orduak baino, erabakigarriena, erabilerak eguneroko bizitzan suposatzen duen interferentzia gradua dela (Davis, 2001).

1.5. Mugikorra eta errendimendua eskolan

Youngek (1998) proposatzen duen azken alarma-seinalea arakatzeko asmoz, berriki gertatutako mugikorraren zabaltzeak, ikasleen errendimendu akademikoan izan dezakeen eragina aztertuko da. Beraz, oraindik oso gutxi ikertu den fenomeno horren inguruan ekarpen bat egiteko asmoz, jarraian, datu batzuk jasotzeko erabilitako metodologia aurkeztuko da.

2. Metodologia

GAL hau, ikerketa lanen esparruan kokatzen denez, datuak biltzeko, mugikorraren erabilerak errendimendu akademikoan izan dezakeen eraginari buruzko 38 itemeko galdetegi bat (1.eranskina) erabili da. Galdetegia, Chóliz eta Villanuevak (2011) diseinatutako ereduari oinarrituta egon da. Hala ere, zenbait galdera moldatu edo kendu dira, berri batzuk sartu diren bitartean, galdetegia mugikorra pairatzen ari den aldatetara egokitzeko.

Horretan, batik bat, mugikorrarekiko menpekotasun maila, menpekotasun horretaz duten pertzepzioa, horri ematen zaion erabilera, abstinentsia eta mugikorrek beste jarduerak batzuetan izan dezakeen interferentzia aztertzen da. Hala ere, aipatzekoa da gehitutako hiru galdera, ateratzen dituzten notei zein ikasketei buruzkoak izan direla. Horiek txertatzearen asmoa, ikasleek mugikorrei emandako erabilerak norberak duen errendimendu akademikoarekin alderatzeko izan da. Azkenik, galdetegi horiei esker bildutako datuak, prozedura atalean azalduko den bezala, estatistikoki tratatu direla esan beharra dago, emaitzak zein ondorioak atera ahal izateko.

3. Lanaren garapena

3.1. Lagina

Ikerketa, Bizkaiko Enkarterri eskualdean kokatuta dagoen itunpeko ikastetxe batean egin da, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako 39 ikaslerekin. Zehazki, bosgarren mailatik parte hartu duen ikasle kopurua 19koa izan da. Seigarren mailatik, berriz, 20 ikasleek parte hartu dute. Lagina osoa kontutan harturik, 39 ikasleetatik, % 69,23 neska da, % 30,77 mutila den bitartean. Adinari dagokionez, ikasleak 10-13 urte bitartekoak dira, batezbestekoa 10,8 urtekoa izanik.

3.2. Prozedura

Ikerketari ekin baino lehen, lehenik eta behin, Lehen Hezkuntzako ikasketa buruari zein Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako tutoreei ikerketa aurrera eramateko asmoa azaldu zitzaion. Haien oniritzia jaso ostean, bosgarren eta seigarren mailetako ikasle

guztiei baimen orri bat pasa zitzaien, non gurasoek haien seme-alabak, ikerketa egiteko baimendu behar zituzten (2. eranskina).

Aipatzekoa da, ikastetxeari, ikasleei zein gurasoei datuen trataera egokia bermatu zitzaie. Halaber, galdetegiak anonimoak izango zirela azaldu zitzaien. Gainera, datuak, mugikorraren erabilerak errendimendu akademikoan izan dezakeen eragina ikertzeko erabiliko zirela azaldu zen, horrela, datuen erabilera arlo zientifikora mugatuz.

Behin, baimen orriak sinatuta izanda, galdetegiak era indibidualean, anonimoan eta konfidentzian bete zituzten. Horretarako, maila bakoitzeko tutoreek, goizeko tarte bat zehaztu zuten galdetegiak gauzatzeko. Gela bakoitzean emandako argibideak berdinak izan ziren; lanaren helburua zein zen eta datuak konfidentzialak izango zirela azaldu zitzaien. Horrez gain, ahalik eta zintzoen erantzuten saiatzeko eskatu zitzaien. Galdera edo zalantzen bat sortuz gero, era indibidualean erantzun zen. Hala ere, zalantzaren bat, behin baino gehiagotan agertu zenez, denentzat argitu zen. Aipatzekoa da, gela bakoitzean gutxi gorabehera 30 minutu behar izan zirela galdetegiak betetzeko.

Galdetegietatik jasotako datuei tratamendu mistoa eman zaie. Zenbait datu era kuantitatiboan isla zitezkeen bitartean, esaterako, partaideen adina lehen mugikorra jaso zutenean, beste batzuk, aldiz, era kualitatiboan soilik ager zitezkeen. Esaterako, azkenengo hiruhilekoan ateratako noten izaera.

Azkenik, galdetegietatik lortutako datuak SPSS izeneko programa estatistikoa erabilita antolatu dira. Izan ere, programa horrek datuen fitxategiaren eraketa egituratua errazten du. Gainera, eraturako datu-basea teknika estatistiko ezberdinen bidez aztertua izan daiteke. Halaber, SPSS programak grafiko mota ezberdinak erabiltzeko aukera eskaintzen du. Grafikoek datuen jokabidea erraztasunez identifikatzea ahalbidetzen dute. Hortaz, SPSS programaren bitartez zegokion analisi estatistikoa egin ostean, jarraian agertzen diren emaitzak lortu ziren.

4. Emaitzak


Atal honetan, ikerketan lortutako datu esanguratsuenak agertuko dira. Hasteko, ikerketan parte hartutako 39 ikasleetatik, % 76,92k mugikorra duela adierazi du. Ezetz, esandako % 23,08, ikerketatik at geratu da, gutxiengo honen ekarpena baliagarria ez zelako, kasu honetan ikertu nahi zenerako. Beraz, hemendik aurrera emango diren datuak 30 ikasleetatik lortutakoak izango dira.

4.1. Internet mugikorrean

Mugikorra dutenen artean, gehiengoak (%90) interneteko sarbidea du, edozein dela bitartekoa (wifi edo tarifa).

4.2. Lehenengo mugikorra jasotzean zuten adina

Lehenengo grafikoan, gehienei mugikorra 9 edo 10 urte zituztenean erosi zietela ikus daiteke. Batezbestekoaren arabera, mugikorra 9,57 urterekin izaten hasten dute.



1. Grafikoa. Zenbat urterekin erosi zituzten zure lehenengo mugikorra?

4.3. Mugikorrarekiko menpekotasuna

Mugikorrarekiko duten menpekotasuna aztertzeari zuzenduta dauden itemak, 15 dira. Galdetegiaren zati horretan, lor dezaketen puntuazioa 0-60 bitarteko balioen artean

egonik, batezbestekoak 17,77ko menpekotasuna dagoela erakusten du. Horrek menpekotasun maila baxua dagoela adierazten du.

Lehenengo taulatik, 4., 15. eta 22. itemak nabarmendu beharra dago. Izan ere, erregistratu diren batezbesteko altuenak islatzen dituzte. Aspertzen direnean mugikorra erabiltzeko joeraren batezbestekoa 2,27 da (gutxienekoa 0 eta gehienezkoa 4 izanik). Bestalde, WhatsApp-ak (edo antzekoak) bidaltzen edo hitz egiten, nahiko luketen baino denbora gehiago ematen duten aztertzen duen itemaren batezbestekoa 1,7koa da. Azkenik, bakarrik sentitzen direnean, WhatsApp-ak (edo antzekoak) bidaltzen dituzten edo norbait deitzen duten aztertzen duen itemaren batezbestekoa 1,7koa da ere.

Bestalde, gutxien ematen den jokaera azpimarratu beharra dago ere (8. itema). Izan ere, mugikorrean diru gehiegi gastatzeagatik errieta egitearen batezbestekoa 0,34koa da.

1. Taula. Mugikorrarekiko menpekotasuna.

Aldagaiak	Batezbestekoak (0-4)
3. Itema: Errieta egin didate mugikorra gehiegi erabiltzeagatik.	1,36
4. Itema: Aspertzen naizenean mugikorra erabiltzen dut.	2,27
5. Itema: Beranduago oheratzen naiz edo gutxiago lo egin dut mugikorrarekin egoteko.	0,62
6. Itema: Jatorduetan, beste pertsona batzuk niri zuzentzen ari direnean... mugikorra erabiltzen dut.	0,53
7. Itema: Arazoren bat dudanean, mugikorra deskonektatzeko erabiltzen dut.	1,5
8. Itema: Errieta egin didate, mugikorrean diru gehiegi gastatzeagatik.	0,34
14. Itema: Mugikorra denbora luzez erabili gabe nagoenean, hori erabiltzeko beharra sentitzen dut.	1,2
15. Itema: Nahiko nukeen baino denbora gehiago ematen dut, WhatsApp-ak (edo antzekoak) bidaltzen edo hitz egiten.	1,7
16. Itema: Mugikorra hondatuko balitzait, konpondu arte, ezeroso/txarto sentituko nintzateke.	1,28

17. Itema: Gero eta maiztasun gehiagorekin mugikorra erabiltzeko beharra sentitzen dut.	1,03
18. Itema: Mugikorra nirekin ez badut txarto/ezeroso sentitzen naiz.	0,87
19. Itema: Mugikorra eskuetan dudanean, ezin diot hori erabiltzeari uzten.	0,93
20. Itema: Ohetik altxatu bezain pronto egiten dudan lehenengo gauza, dei edo WhatsApp-ak (edo antzekoak) ditudan begiratzea da.	1,17
21. Itema: Ez dut uste, aste batez mugikorrik gabe egoteko gai izango nintzatekeela.	1,27
22. Itema: Bakarrik sentitzen naizenean, WhatsApp-ak (edo antzekoak) bidaltzen ditut edo norbait deitzen dut.	1,7
Guztira	17,77

Hala ere, nahiz eta batezbestekoaren menpekotasun maila baxua izan, 2. taulan ikus daitekeenez, % 16,67k 30 baino gehiagoko puntuazioa lortu du, kasu horretan menpekotasun maila altuagoa izanik, kontutan hartuz, lor dezaketen puntuazioa³ 0-60 bitarteko balioen artean dagoela. Gainera, ikasle batek 42 puntuko menpekotasun maila erakutsi du.

2. Taula. *Ikasle bakoitzak lortutako puntuazioa menpekotasunaren galdetegian.*

Ikaslearen sexua	Mugikorrarekiko duen menpekotasuna (0-60)
Neska	23
Neska	4
Neska	2
Neska	16
Mutila	27
Neska	8
Neska	14
Neska	9
Neska	5

³ Mugikorrarekiko duten menpekotasunaren puntuazioa 0tik 60ra doa. Izan ere, hori neurtzeko 15 item kontutan hartu dira, bakoitzak gehienez 4 puntuko balioa izanik.


Neska	0
Neska	13
Mutila	12
Mutila	11
Mutila	35
Mutila	8
Neska	34
Neska	32
Neska	42
Neska	34
Neska	30
Mutila	22
Mutila	7
Neska	27
Mutila	17
Neska	25
Neska	12
Neska	15
Neska	18
Neska	19
Neska	11

Sexuaren aldetik, menpekotasuna neurtzen duen galdetegian, puntuazio gehien lortutako lehenengo bostak neskak dira bat izan ezik. Datu hori ere, bigarren taulan ikusgarri dago.

4.4. Mugikorraren gastua

2. grafikoan ikus daitekeen bezala, ikasle gehienei haien gurasoek ordaintzen diete mugikorrean gastatzen duten dirua. Hala ere, gutxi batzuek haien ordaintzen dutela adierazi dute. Kasu batean ere, izekoa da mugikorreko gastua ordaintzen duena.

Gastuarekin lotuta, lehen esan bezala, gehienek ez dute arazorik izaten haien gurasoekin mugikorrean xahutzen duten diruagatik.



2. Grafikoa. Nork ordaintzen du mugikorrean gastatzen duzun dirua?


4.5. Mugikorrari ematen dioten erabilera

Eskolako zereginak, WhatsApp-ak bidali eta deiak egitearen artean, ikasleek mugikorra gehienbat WhatsApp-ak bidaltzeko erabiltzen dute. Gero, deiak egiteko erabiltzen dute gehienbat eta azkenik, batezbestekoak erakusten duen bezala (gutxieneko balorea 0 eta gehienezkoa 4 izanik), mugikorra inoiz ez edo oso gutxitan erabiltzen dute eskolako zereginak egiteko (3. taula).


3. Taula. Mugikorraren bitartez, eskolako zereginak egiteko, WhatsApp-ak bidaltzeko eta deiak egiteko maiztasunen batezbestekoak.

Aldagaiak	Batezbestekoak (0-4)
10. Itema: Mugikorra eskolan bidaltzen dizkidaten zereginak egiteko erabiltzen dut (informazioa bilatzeko, esaterako).	0,83
11. Itema: Mugikorra WhatsApp-ak (edo antzekoak) bidaltzeko erabiltzen dut.	3,4
12. Itema: Mugikorra deiak egiteko erabiltzen dut.	2,5

Horrez gain, gehiengoak mugikorra beste gauza batzuetarako ere erabiltzen du: sare sozialetan sartzeko eta bideojokoetara jolasteko (3. eta 4. grafikoak).



3. Grafikoa. Mugikorra sare sozialetan (Twitter, Instagram, Tuenti, Ask.fm...) sartzeko erabiltzen duzu?



4. Grafikoa. Mugikorra bideo-jokoetara jolasteko erabiltzen duzu?

Bestalde, batezbestekoak honako hau adierazten du: ikasleek egunero 66,76 minutu, hau da, ordu bat eta zazpi minutu ematen dituztela mugikorra erabiltzen. Asteburuetan, denbora hori handitu egiten da. Izan ere, asteburuko egun bakoitzean, batezbestekoa 124,66 minutukoa da. Hau da, bi ordu eta bost minutu ematen dituzte mugikorra erabiltzen. Beraz, asteburuetan mugikorrean ematen duten denbora ia bikoizten da. Egiten dituzten deietan ere, handiagotze bat hauteman daiteke ere. Asteazkenean, egiten dituzten dei kopuruaren batezbestekoa 1,17koa da. Larunbatean edo igandean, berriz, batezbestekoa 2,37 dei egitea da. Kasu honetan ere, dei kopurua bikoiztu egiten da. Aipatzekoa da, astean zehar neskek (batezbestekoa: 72,40 minutu) denbora gehiago ematen dutela mugikorra erabiltzen mutilek (batezbestekoa: 51,25 minutu) baino.

4.6. Ohiturak

Ohean daudenean, erdiak mugikorra erabiltzen duela erantzun du. Horrekin lotuta, % 46,67k lo egiteko mugikorra itzaltzen ez duela adierazi du. Ohiturekin erlazioa duen beste galdera bat ere egin zaie. Hain zuzen ere, ea etxerako lanak egiten edo ikasten ari diren bitartean, mugikorra erabiltzen duten WhatsApp-ak (edo antzekoak) bidaltzeko. % 86,67k ez duela erabiltzen erantzun du.

4.7. Mugikorrari ematen dioten erabileraren inguruan duten pertzepzioa

Haien pertzepzioaren arabera, 0tik 100era mugikorrarekiko duten menpekotasuna baloratzea eskatu zaienean, batezbestekoa 44,67koa izan da. Datu hori, 60tik (kalkulu hau menpekotasuna neurtzen duen testaren totalarekin konparatu ahal izateko egin da), 26,80 da. Beraz, ikasleek benetan duten (batezbestekoa: 17,77) baino menpekotasun handiago bat dutela uste dute.

4.8. Mugikorrarekiko menpekotasuna eta errendimendu akademikoa


4. taulan ikus daitekeen bezala, nota oso onak izan dituztela erantzun dutenen % 80k mugikorrarekiko duen menpekotasuna oso baxua edo baxua da. Emaidza hori, berdez adierazita dago taulan. Bestalde, erdipurdikoak edo txarrak erantzun dutenen % 50ek mugikorrarekiko menpekotasun maila handiagoa erakusten du. Emaidza hori, gorritz adierazita dago taulan. Hala ere, menpekotasun maila altua erakutsi duten bi ikasle daude, nota onak ateratzen dituztela esan dutenak.

4.Taula. Mugikorrarekiko menpekotasuna eta ikasleen notak.

Mugikorrarekiko duten menpekotasuna (0-60)	Notak
23	Onak
4	Oso onak
2	Oso onak
16	Onak
27	Erdipurdikoak
8	Erdipurdikoak
14	Onak
9	Erdipurdikoak
5	Oso onak
0	Oso onak
13	Erdipurdikoak
12	Txarrak
11	Oso onak
35	Erdipurdikoak

8	Onak
34	Erdipurdikoak
32	Onak
42	Onak
34	Erdipurdikoak
30	Erdipurdikoak
22	Oso onak
7	Erdipurdikoak
27	Onak
17	Onak
25	Oso onak
12	Oso onak
15	Oso onak
18	Oso onak
19	Onak
11	Onak

Horrez gain, 5. grafikoan ikus daitekeen bezala, portzentaje nabarmen batek mugikorrek ikasteko denbora kentzen diola dio. Halaber, baietz erantzun dutenenen % 66,67k notak erdipurdikoak ditu.



5. Grafikoa. Esango zenuke mugikorrek ikasteko denbora kentzen dizula?

5. Ondorioak

Nahiz eta adituen artean eztabaida handia egon, zenbait jakitunek, gazteen aldetik, mugikorrarekiko erabilera ezegokiaren seinaleak daudela baieztatzen dute (Castellana, Sánchez-Carbonell, Graner & Beranuy, 2007; Chóliz, Villanueva & Chóliz, 2009). Ikerketa honetan, erabilera ezegoki horren aztarnak aztertu dira errendimendu akademikoan izan ditzaketen eragina arakatzeko.

Ikerketan parte hartu duten ikasle gehienek mugikorra dutela adierazi dute. Batzuetan, gurasoen erabakia da haurrek txikitatik mugikorra izatea, mugikorra haien seme-alabak kontrolatzeko tresna eraginkorra ikusten baitute. Beste batzuetan, berriz, gurasoen interesa baino, haurrak dira mugikorra izatea nahi dutenak. Ikerketa honen arabera, haien lehenengo mugikorra jasotzean duten batezbesteko adina 9,57 urtekoa da. Halaber, bost ikaslek haien lehenengo mugikorra 8 urterekin jaso zutela adierazi dute. Emaidza horrek, haurrek gero eta lehenago jasotzen dutela haien lehenengo mugikorra frogatzen du. Izan ere, 2011. urtean, Komunikazioaren Teknologia Institutu Nazionalak haurren batezbesteko adina telefonia mugikorrean hastean, 10-12 urtekoa zela ezagutzera eman zuen.

Gehiengoari gurasoek mugikorrean xahutzen duten dirua ordaindu arren, aipatzekoa da, mugikorrean diru gehiegi gastatzeagatik errieta egitearen itemak oso erregistro baxua izan duela. Horren arrazoia, ikasleek interneteko sarbidea, wifiari edo tarifa lauei esker dutelako izan daiteke. Beraz, nahiz eta mugikorreari erabilera handia eman, horrek ez die suposatzen diru gehiegi gastatzea.

Nahiz eta mugikorrarekiko menpekotasunaren batezbestekoa baxua izan, seitik batek menpekotasun nahiko altua erakutsi du. Beraz, nahiz eta orokorrean menpekotasunik ez den islatu, gutxiengo batek mugikorrarekiko gehiegizko erabilera erakutsi du. Abusu horrek, alde batetik, ikasleen deskantsuan eragina izan dezake. Deskantsua ezegokia bada, ikasleen gogoak eta portaera kaltetuta ikus daitezke (Echeburúa, 2001; Echeburúa et al., 1998). Horrek, era berean, haien errendimendu akademikoan eragina izan dezake, nekatuagoak egongo direlako edota haien arreta maila baxuago izango delako, besteak beste. Beste aldetik, mugikorrek antsietatea eta estresa sorraraz dezakete ere (Pérez-Granda, 2013). Ez hori bakarrik, gehiegizko erabilerak ikasteko eta etxerako lanak

egiteko denbora kendu ahal die, horrek ikasketan hain beharrezkoa den eguneroko konstantzian eragina izanik.

Mugikorra batez ere WhatsApp-ak edo antzekoak bidaltzeko erabiltzen dute. Asteazkera zehar, dei kopuruaren batezbestekoa dei batekoa da. Gainera, 30 ikasletik hamahiru ikaslek, asteazkera zehar, 0 dei egiten dituztela adierazi dute. Beraz, ikasleek haien berdinekin komunikatzeko gehien erabiltzen duten bitartekoa WhatsApp programa edo antzekoak dira. Izan ere, bidal ditzaketen mezu kopurua infinitua da, ez dutelako ordaintzen bidaltzen duten mezu bakoitzagatik. Gainera, idatzizko komunikazioak beste abantaila batzuk ekartzen dizkie ere: erantzunak lasaitasunez pentsa eta idatz ditzakete eta sentimenduak errazagoa adierazten dituzte (Echeburúa & Corral, 2010). Halaber, programa horiek ere, talde bateko partaideak izatearen sentimendua sendotu dezakete, WhatsApp talde ezberdinak sortu daitezkeelako, non argazkiak, bideoak, esperientziak... elkartrukatu ditzaketen.

Horrez gain, gehiengoak mugikorra sare sozialetan sartzeko eta bideo-jokoetan aritzeko ere erabiltzen du. Aitzitik, mugikorra oso ikasle gutxi erabiltzen dute eskolan bidaltzen dizkieten zereginak egiteko. Beraz, ondoriozta daiteke, mugikorra aisialdirako eta komunikaziorako tresna bezala erabiltzen dutela. Horren harira, aspertzen eta bakarrik sentitzen direnean erabiltzeko joera dutela azaleratu da. Hori ez gertatzeko, gurasoek euren seme-alaben aisialdia kudeatzen lagundu behar diete. Aisialdirako eskura dituzten aukera guztiak erakutsi behar zaizkie. Modu honetan, haien gustukoak diren ekintzetan inplikatu daitezke (Labrador, Requesens & Helguera, 2011).

Ohiturei dagokienez, erdiak ohean daudenean mugikorra erabiltzen duela dio. Datu hori kezagarria izan daiteke, ikasleen deskantsua eragotzita ikus daitekeelako. Aurretik esan den bezala, ohitura hori izateak errendimendu akademiko baxu bat ekar dezake. Gainera, erdiak ere, lo egiteko mugikorra ez duela itzaltzen adierazi du. Horrek haien deskantsua etetea ekar dezake jaso duten mezuren bat irakurtzeko. Halaber, mugikorra ikusteko lo egiteari uzten dionak, mugikorrarekiko menpekotasun handia erakutsiko luke.

Nahiz eta gehiengoak mugikorra etxerako lanak egiten dauden bitartean ez duen erabiltzen, lau ikaslek erabiltzen dutela adierazi dute. Horren inguruan, betebeharren eta

aisialdiaren espazioak bereiztea garrantzi handikoa dela aipatu beharra dago. Izan ere, mugikorrak distrazioa laguntzen du. Ildo beretik, ez da komenigarria, gurasoek haien seme-alabei klaseko zereginak bukatu ostean baino ez dutela mugikorra erabiltzeko aukera izango esatea. Izan ere, horrek etxerako lanak edozein modutan eta azkarregi egiteak ekar dezake. Gomendagarriagoa da, mugikorra erabiltzeko denbora bat finkatzea (Labrador et al., 2011). Horren harira, egile horiek honako hau gaineratzen dute:

En cuanto al tiempo, no existe una regla de oro. No hay un límite a partir del cual se considere excesivo el uso. Cada persona tiene unas obligaciones que le dejan más o menos tiempo libre. (Labrador et al., 2001: 32).

Aipatzekoa da mugikorrarekiko duten menpekotasuna eta ateratzen dituzten noten artean lotura bat aurkitu dela. Hori bat etor daiteke, mugikorraren erabilera intentsiboak eta eskola porrota aztertzen duten ikerketekin (Sánchez-Martínez & Otero, 2009). Izan ere, notak oso onak izan dituztela erantzun dutenen % 80k mugikorrarekiko duen menpekotasuna oso baxua edo baxua da. Aldiz, erdipurdikoak edo txarrak erantzun dutenen % 50ek mugikorrarekiko menpekotasun maila handiagoa erakusten du. Hortaz, esan daiteke mugikorrarekiko menpekotasun ezak, errendimendu akademiko ona izatea ekar dezakeela eta alderantziz. Hala ere, errendimendu akademiko baxuak ikerketaren kontrolpean ez zeuden beste kausa batzuegatik izan daitezkeelako posibilitatea ez da baztertu behar. Modu berean, nahiz eta aldagai bi horien artean lotura bat aurkitu den, korrelazio hori ez da estatistikoki konprobatu.

Gainera, portzentaje (%40) nabarmen baten iritziz ere, mugikorrekin ikasteko denbora kentzen diete. Beraz, mugikorra hainbeste ez erabiltzekotan agian denbora gehiago emango zuten ikasten zein etxerako lanak egiten eta horrek haien errendimenduaren hobekuntza ekar lezake. Horrekin lotuta, nahiz eta haien pertzepzioa gutxi gora behera bat datorren mugikorrarekiko menpekotasun testak diogenarekin, bik izan ezik beste guztiek errealitatean duten baino menpekotasun handiago bat dutela uste dute. Hau da, gorazko joera bat hauteman da.

Horrez gain, batezbestekoak honako hau adierazten du: ikasleek ordu bat eta zazpi minutu ematen dituztela mugikorra erabiltzen egunero. Asteburuetan, denbora hori handitu egiten da. Izan ere, asteburuko egun bakoitzean, bi ordu eta bost minutu ematen

dituzte mugikorra erabiltzen. Beraz, asteburuetan mugikorrean ematen duten denbora ia bikoizten da. Egiten dituzten deietan ere, handiagotze bat hauteman daiteke. Asteazken zehar, egiten dituzten dei kopuruaren batezbestekoa dei batekoa da. Larunbatean edo igandean, berriz, batezbestekoa bi dei egitea da. Kasu honetan ere, dei kopurua bikoiztu egiten da. Nahiz eta asteburuetan denbora libre gehiago izan, gurasoek mugikorrarekin egoteagatik, beste gauza batzuk egiteari ez diotela uzten behatu beharko lukete.

Puntu honetan, menpekotasuna ekiditeko, gurasoen eskuetan dauden prebentzio estrategia batzuk azaleratzea komenigarria izan daiteke (Ramón-Cortés, 2010):

- Ahal den heinean, aurrez aurreko komunikazioa sustatu. Gainera, fisikoki dauden pertsonen lehentasuna eskaini behar zaiela irakatsi behar zaie.
- Mugikorra erabiltzeko denbora zehaztu. Denbora hori ume bakoitzaren baldintzak kontutan hartuz zehaztu behar da.
- Haurrek izan ditzaketen zaletasun (irakurketa, kirolak, zinema...) ezberdinak indartu.
- Dialogoa eta komunikazioa suspertu familia arloan. Horren harira, mugikorraren erabileraren inguruko arauak ezarri behar dira. Esaterako, jatorduetan, mugikorraren erabilera debekatu.
- Haurren eredia izan. Haiei eskatzen zaiena gurasoek ere bete behar dute (Labrador et al., 2011).

Ikerketa txiki honen interpretazioei bukaera emateko, nabarmendu beharra dago, ikerketaren helburu nagusia bete egin dela: hezkuntzari, mugikorraren erabileraren inguruko ekarpen bat egitea, non korrelazio bat aurkitu den, mugikorrarekiko menpekotasunaren eta errendimendu akademikoaren artean, Lehen Hezkuntzako ikasleetan.

Azkenik, lanarekin bukatu aurretik, aipatu beharra dago kontutan hartu beharreko aspektu batzuk daudela.

Lehenik eta behin, ikerketaren mugak aintzat hartu behar dira. Izan ere, ikerketa egiteko erabilitako lagina txikia izan da eta beraz, lortutako datuak ezberdinak izan litezke ikerketa bera lagina handiago batekin egin izan balitz. Gainera, ikerketa beste aldagai batzuegatik eraginduta egon ahal izan da. Esaterako, datuekiko

konfidentziasunean ez sinesteagatik, onarpen soziala bilatzeagatik eta ikasleen aurretiko jarreragatik. Hortaz, aipaturiko aspektu horiek aintzat hartzea merezi dute, emaitza zein ondorioetan eragina izan ahal dutelako.

Kontutan hartzekoa da ere, mugikorrarekiko menpekotasuna ikasleen errendimendu akademikoarekin alderatzeko, noten inguruko galdera bat baino ez dela erabili. Galdera hori gainera, ikasleen subjektibotasunarengatik eraginduta egon daiteke. Izan ere, ikasle batentzat seiak ateratzea nota onak ateratzea izan daiteke eta beste batentzat, aldiz, ez.

Beraz, muga horiek gainditzeko, etorkizuneneko ikerketetan interesgarria izango litzateke, lagina handiago bat hartzea, emaitzak eta ondorioak esanguratsuagoak zein fidagarriagoak izateko. Gainera, datuak beste iturri batzuetatik, eta ez bakarrik ikasleengandik, lortu beharko lirateke. Hain zuzen ere, irakasle eta gurasoei galdetu beharko litzaieke, informazio gehiago lortzeko eta galdetegietan lortutako emaitzak gurasoek zein irakasleek emandako informazioarekin alderatzeko. Horrela, kasu honetan ikerketatik at egon diren faktore batzuk kontrolatzea lortu liteke.

Horrez gain, interesgarria izan liteke, datuak maila ezberdinetan jasotzea. Izan ere, horrek mugikorraren erabileraren eboluzioa ikustea ekarriko luke, nerabezarora hurbiltzen diren heinean erabilera handitzen den edo ez ezagutzuz.

Hala eta guztiz ere, ikerketa hau hezkuntza komunitaterako erabilgarria izatea eta halako ikerketak egiten jarraitzea espero da. Izan ere, IKTeikiko eta batez ere, mugikorrarekiko menpekotasunari buruz zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta eraginkorragoak izango dira prebentzio programak. Gainera, mugikorra etengabe aldatzen ari den tresna denez, etorkizun batean, haren hedatzeak ondorio ezberdinak ekar litzake.

Azkenik, mugikorraren erabilera ezegokiak errendimendu akademikoan izan dezakeen eragina ekiditeko, prebentzio programei haurtzaroan eman beharko litzaieke hasiera. Horretarako, ezinbestekoa da haurrek IKTei ematen dieten erabilera aztertzea eta ez orain arte egin den bezala, nerabeetan soilik zentratzea.

6. Erreferentzia bibliografikoak

Ambriz, M. L. (2011). El uso del celular para desarrollar el pensamiento crítico, reflexivo y analítico. *Etic@ net*, 9(11), 196-212.

American Psychiatric Association (2000). *Diagnostic and statistical manual of mental disorders IV. Text revision*. Washington: APA.

Becoña, E. (2006). *Adicción a nuevas tecnologías*. Vigo: Nova Galicia.

Castellana, M., Sánchez-Carbonell, X., Graner, C. & Beranuy, M. (2007). El adolescente ante las tecnologías de la información y la comunicación: Internet, móvil y videojuegos. *Papeles del psicólogo*, 28(3), 196-204.

Chóliz, M. & Villanueva, V. (2011). Evaluación de la adicción al móvil en la adolescencia. *Revista Española de Drogodependencias*, 36(2), 165-183.

Chóliz, M., Villanueva, V. & Chóliz, M. C. (2009). Ellas, ellos y su móvil: uso, abuso (¿ y dependencia?) del teléfono móvil en la adolescencia. *Revista española de drogodependencias*, 34(1), 74-88.

Davis, R. A. (2001). A cognitive-behavioral model of pathological Internet use. *Computers in Human Behavior*, 17, 187-195.

175/2007 Dekretua. Boletín Oficial del Estado de España, 2007ko azaroak 13.

Echeburúa, E. (2001). *Abuso de alcohol*. Madrid: Síntesis.

Echeburúa, E., Amor, P. J. & Cenea, R. (1998). Adicción a Internet: ¿una nueva adicción psicológica? *Monografías de Psiquiatría*, 2, 38-44.

Echeburúa, E. & Corral, P. (2010). Adicción a las nuevas tecnologías y a las redes sociales en jóvenes: un nuevo reto. *Adicciones: Revista de socidrogalcohol*, 22(2), 91-96.

Echeburúa, E. & Corral, P. (1994). Adicciones psicológicas: más allá de la metáfora. *Clínica y Salud*, 5, 251-258.

Estallo, J. A. (2001). Usos y abusos de Internet. *Anuario de Psicología*, 32, 95-108.

- Estévez, L., Bayón, C., De la Cruz, J. & Fernández-Liria, A. (2009). Uso y abuso de Internet en adolescentes. En E. Echeburúa, F. J. Odriozola & E. Becoña (Eds), *Adicción a las nuevas tecnologías en adolescentes y jóvenes* (pp. 101-130). Madrid: Pirámide.
- González-Cortijo, I. (2013). *Estudio sobre el uso y abuso del teléfono móvil en alumnos de Educación Primaria*. Logroño: Universidad de la Rioja.
- Griffiths, M. (1995). Technological addictions. *Clinical Psychology Forum*, 76, 14-19.
- INTECO (2011). *Estudio sobre hábitos seguros en el uso de smartphones por los niños y adolescentes españoles*. 2015-05-03an hartuta, hemendik: <https://www.incibe.es/file/gY5Z52GSo8wGEiZl7GiXgQ>.
- Labrador, F. J., Requesens, A. & Helguera, M. (2011). *Guía para padres y educadores sobre el uso seguro de Internet, móviles y videojuegos*. Madrid: Fundación Gaudium.
- Labrador, F. J. & Villadangos, S. M. (2010). Menores y nuevas tecnologías: conductas indicadoras de posible problema de adicción. *Psicothema*, 22(2), 180-188.
- 15/1999 Lege Organikoa. Boletín Oficial del Estado de España, 1999ko abenduak 13.
- Malo-Cerrato, S. (2006). Impacto del teléfono móvil en la vida de los adolescentes entre 12 y 16 años. *Revista científica de Comunicación y Educación*, 27, 105-112.
- Martínez-Martínez, E. (2001). La evolución de la telefonía móvil. *Revista RED*, 1-6.
- Muñoz-Rivas, M. J., Navarro, M. E. & Ortega, N. (2003). Patrones de uso de Internet en población universitaria española. *Adicciones*, 15(2), 137-144.
- Pérez-Granda, L.J. (2013). ¿ Se constituye el uso del smartphone en una adicción?. *Grupo de investigación en estudios clínicos y sociales en psicología. Redes sociales virtuales*. Cartagena: Universidad de San Buena Ventura Seccional Medellín.
- Potenza, M. (2006). Should addictive disorders include non-substance related conditions? *Addiction*, 101(1), 142-151.

- Ramón-Cortés, F. (2010). ¿Internet amenaza el contacto real? *El País Semanal*, 1736, 24-25.
- Romaní, J. C. (2011). El concepto de tecnologías de la información. Benchmarking sobre las definiciones de las TIC en la sociedad del conocimiento. *Zer-Revista de Estudios de Comunicación*, 14(27), 295-318.
- Sánchez-Carbonell, X., Beranuy, M., Castellana, M., Chamarro, A. & Oberst, U. (2008). La adicción a Internet y al móvil: ¿moda o trastorno?. *Adicciones: Revista de sociodrogalcohol*, 20(2), 149-160.
- Sánchez-Carbonell, X., Graner, C. & Quintero, B. (2010). Prevenir las adicciones a las tecnologías de la información y la comunicación en la escuela mediante actividades educativas. *Trastornos adictivos*, 12(1), 19-26.
- Sánchez-Martínez, M. & Otero, A. (2009). Factors associated with cell phone use in adolescents in the community of Madrid (Spain). *CyberPsychology & Behavior*, 12(2), 131-137.
- Spiegel, A. (1997). *La escuela y la computadora*. Buenos Aires: Novedades Educativas.
- Viñas, F., Juan, J., Villar, E., Caparros, B., Perez, I. & Cornella, M. (2002). Internet y psicopatología: las nuevas formas de comunicación y su relación con diferentes índices de psicopatología. *Clínica y Salud*, 13, 235-256.
- Weare, K. (2004). What impact is having information technology on our young people's health and well-being. *Health Education*, 104, 129-131.
- World Health Organization (1992). *The ICD-10 Classification of Mental and Behavioural Disorders*. Genève: O.M.S.
- Young, K. (1998). Internet Addiction: The emergence of a new clinical disorder. *Cyberpsychology & Behavior*, 1(3), 237-244.